

## 100 urte baino gehiagoko historia

1898ko apirilaren 12an sendagileak elkargokide izatera behartzen zituen Errege Agindua argitaratu zen. Urtebete beranduago, 1899ko apirilaren 20an, Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofiziala sortu zen, lanbidean zegoen intrusismoa amaiazteko eta medikuntzaren eta osasunaren esparruetako garai hartako beharrezanean aurre egiteko. XIX. mendearen amaieratik aurrerako Gipuzkoako medikuntzaren historian bi etapa bereizten dira argi eta garbi: Gerra Zibilaren aurrekoa eta gerra ostekoa, gaur egunera artekoa.

### Gerra zibilaren aurreko etapa

Gipuzkoako medikuntzak aldi bereziki bikaina bizi izan zuen 1936. urtera arte, eta baliabide urriak izan arren, Gipuzkoa aitzindaria izan zen medikuntzaren eta osasunaren esparruetako ekimen ugartan. Juan Jose Celaya<sup>1</sup> doktoreak Elkargoa sortzearen alde egindako apustu irmoaren ondorioz, 1899. urtean Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzordea sortu zen. Celaya doktoreak Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko Aldizkari Ofizialaren<sup>2</sup> argitalpena bultzatu zuen.

Elkargoa 25 sendagilek osatu zuten hasieran. Urtebete beranduago Gipuzkoako ia sendagile guztiak elkargokideak ziren (zortzi sendagile zibil eta bi sendagile militar bakarrik geratu ziren kanpoan). 1916. urtean elkargoak Akademia Mediko-kirurgikoa<sup>3</sup> martxan jarri zuen, eta *Guipúzcoa Médica*<sup>4</sup> aldizkaria argitaratzen hasi zen.

---

<sup>1</sup> Sendagileen eta Farmazialarien Euskal Herriko Elkargoko lehendakari izendatua 1891. urtean. Elkargoa sortzeko bileretan parte hartu zuen, eta aho batez Elkargoko buru aldarrikatua izan zen. Elkargoko lehendakari izan zen 1899. eta 1903. urteen artean, baita Usurbil, Orio, Azpeitia eta Donostiako laugarren barrutiko sendagile titular ere. Ondoren medikuntza-aretoko burua izan zen Manteo Ospitalean, eta bertako zuzendari ere izan zen. Esne-tanta sortzeko lanetan parte hartu zuen.

<sup>2</sup> Hileroko aldizkari honen lehen zenbakia 1899. urteko azaroaren 5ean argitaratu zen, eta azkena 1911. urtean. Argitalpenaren helburuak ondorengoak ziren: elkargokide berriek bat egitea, landa-medikuei beren eskumenei eta udalekiko harremanei buruzko aholkuak ematea eta intrusismo-kasuak ezagutaraztea, nagusienak aipatzeko. Atal zientifikoak Urrutia edo Celayaren mailako sendagileen lanak biltzen zituen. Tuberkulosiari, pneumoniari, digestio-aparatuari eta abarri buruzkoak izaten ziren lan horiek.

<sup>3</sup> Bertan sendagileek eta kirurgialariek beren kasu klinikoak azaldu eta zientziari zein medikuntza-esperientziei buruzko ideien elkartrukea egiten zuten.

<sup>4</sup> Gipuzkoako sendagile famatuenean lankidetzarekin, hilerok argitaratu zen etenaldirik gabe, 1936an Gerra Zibila hasi zen arte.

Gipuzkoako medikuntzaren historiako pertsonaia garrantzitsuen artean aipagarriak dira, besteak beste, Emiliano Eizaguirre fisiologo entzutetsua, tuberkulosiaren aurkako borrokaren arduraduna izan zena, 1934. urtean borroka hori Estatuak bere gain hartu arte. Eizaguirre doktoreak Lorearen jaia<sup>5</sup> ezarri zuen Donostian, bertan egin zen Tuberkulosiari buruzko II. Nazioarteko Biltzarraren ondoren. Gainera, doktorea aitzindaria izan zen tuberkulosiaren aurkako artategi eta erietxeen sorrera bultzatzen.

Bestalde, Luis Ayestaran<sup>6</sup> eta Benigno Oreja<sup>7</sup> doktoreek Manteo Ospitalearekiko<sup>8</sup> independentea zen minbiziaren aurkako zentro espezifiko bat irekitzeko beharrezana antzeman zuten. Hala, 1933. urtean Gipuzkoako Institutu Erradio-kirurgikoa<sup>9</sup> inauguratu zuten.

---

<sup>5</sup> Donostia izan zen ekimen hau egin zuen Espainiako lehen hiria, eta jarraian beste hiri batzuek imitatu zuten, Madril eta Bilbo esaterako. Azken finean, tuberkulosiaren aurkako funtsak lortzeko diru-biltzea zen.

<sup>6</sup> 1914. urtean ekin zion bere jardura profesionalari Donostiako San Antonio Abad Ospitalean. Bertako kirurgia-aretoko buru izatera iristeaz gain zuzendari ere izan zen, 1936. urtean hasi eta 1954. urtean hil zen arte. Gurutze Gorriaren Ospitaleko eta Donostiako zezen-plazako kirurgialaria ere izan zen. 1921. urtean Arantzazuko Amaren erietxea sortu zuen, Olalde, Altolaguirre eta Mozo doktoreekin batera. 1933. urtean Gipuzkoako Institutu Erradio-kirurgikoa sortu zuen.

<sup>7</sup> Medikuntza Valladoliden ikasi zuen, eta urologia Parisen. Espainiako lehen urologoetako bat izan zen. Uretrostomia perinealean aitzindaria izan zen, eta hori bultzatzeaz eta endoskopia sartzeaz gain Gipuzkoan odol-transfusioa egiten lehena izan zen. Sendagile Elkargoaren lehendakari izan zen 1920 eta 1924. urteen artean, baita 1940 eta 1946. urteen artean ere (gera osteko lehen lehendakaria izan zen).

<sup>8</sup> San Antonio Abad Ospitale Zibila da, Manteo Ospitalea esan ohi zaion arren. 1888. urtean Uli mendia magalean inauguratu zen, eta 1960. urtera arte egon zen irekita. Gaixo infekziosoak hartzea zuen helburu. Ospitalea eraikitzeke prozesua oso neketsua izan zen, lursaila Sangarren baroiari erosteko negoziazioak luzeak izan baitziren. Gainera, ereduak aurkitzeko atzerriko ospitaleetara bisitak egin behar izan zituzten. Goikoak diseinatu, hiru pabiloi paralelo zituen, elkarren artean galeria baten bidez komunikatuta. Juan Jose Celaya bertako lehen zuzendaria izan zen, eta 1893. urtean Hilario Gaiztarro doktorea izendatu zuten kirurgia-saileko buru [azken hau kirurgia digestiboko teknika sartu zuen Gipuzkoako lehen kirurgialaria izan zen]. 1960. urtean eraitsi zuten, Ospitale Probintziala eraiki ondoren.

<sup>9</sup> Espainiako minbiziaren aurkako hirugarren zentroa zen, Madril eta Bartzelonaren ondoren. Laguntza-zentro eta minbiziari buruzko ikerketa-zentro izatea zuen helburu hasieratik bertatik. Hasieran lau solairu zituen, erradioterapia- eta erradiodiagnostiko-zerbitzuak, kontsultak, laborategiak, kirurgia-aretoak, etab. Bertako lehen zuzendaria Ayestaran doktorea izan zen. Honek eta Oreja doktoreak Gipuzkoan Manteo Ospitalearekiko independentea izango zen minbiziaren aurkako zentro berria sortzeko beharrezana nabarmendu zuten. Zentro berria eraikitzeke lanak Aurrezki Kutxa Probintzialaren laguntzarekin hasi ziren 1928. urtean. Zentroak ez zituen bere ateak 1933. urtera arte ireki, eta 1952. urtetik aurrera Aurrezki Kutxa Probintzialarena izan zen. 1957. urtean Institutu Onkologikoa izena hartu zuen. 2009. urtean inauguratu zuten, Onkologikoa izenarekin, Miramongo ospitale-aldeko eraikin berria. Bertan hainbat esparrutako 300 profesionalak baino gehiagok dihardute lanean, eta egindako inbertsioa 60 milioi eurotik gorakoa izan zen. Onkologikoa Kutxaren gizarte-ekintzaren parte da.

Manteo Ospitaleko beste profesional aipagarria Jose Beguiristain doktorea izan zen, entzute handiko barne-medikuntzako sendagilea. Valladoliden ikasi ondoren dermatologian eta sifilian espezializatu zen Parisen. Gainera, bere prestakuntza parasitologia, epidemiologia eta bakteriologiako alorretan ere hedatu zuen.

Gastroenterologia kirurgikoaren benetako sortzailea izan zen Luis Urrutia doktore donostiarra ezaguna bihurtu zen Gipuzkoako mugetatik kanpo ere. Urrutia kirurgia gastrikoan trebatu zen Parisen, eta kirurgialari espezializatu gisa aritzea ahalbidetu zion diploma lortu zuen bertan. Londresen, Vienan eta AEBetan ere egin zuen lan, eta Europako eta Ipar Amerikako aldizkarietan publikatu zuen. Lortutako ospearen ondorioz Donostia utzi eta Madrilen eman zion jarraipena bere bizitza profesionalari<sup>10</sup>.

Donostia aitzindaria izan zen higieనేarekin erlazionatutako zerbitzuei dagokienez, eta Espainiako lehenengo hiri higieనే-gaietan izendatu zuten. Donostiako Udalak desinfekzio-, desintsektazio- eta desratizazio-zerbitzuak sortu zituen, baita eskoletako ikuskaritza eta txertaketa-zerbitzua ere. Halaber, bainuetxeak eta Espainiako lurpeko lehen komun publikoak eraiki zituen 1906. urtean. Gainera, Udal Laborategi Kimikoa<sup>11</sup> sustatu zuen, baita Udal Sorospen Etxearen<sup>12</sup> bidezko mediku-laguntza ere. Sorospen-etxea udako oporrek zekarten larrialdien gorakadari aurre egin ahal izateko eraiki zuten 1881. urtean. 1922. urtetik 70eko hamarkadara arte anbulantzia-zerbitzua izan zuen. Zenbait urtean, hiriak anbulantzia bakarra izan zuen. Urte gutxi batzuk beranduago, 1925. urtean, Donostiako Udalak Higieనేaren Udal Institutua sortu zuen, Higieనే eta Osasungarritasun Bulegoaren, Udal Laborategi Kimikoaren eta Albaitaritzako Irakasleen arteko lotura sortzeko.

Gainera, Gipuzkoako higieనే publikoa ere hobetu egin zen, Irungo eta Pasaiaiko portuko osasun-estazioen sorrerarekin batera. Irungo osasun-estazioa Espainiako lehena eta Europako osoenetako bat izan zen. Mugako osasun-zerbitzuen eta migrazio-mugimenduen erregulazioaren eta zirkulazioaren esparruan egiten zuen lan. Zentro honek gaixo zeudelako edo baliabiderik ez zutelako aberriratutako espainiarrak artatzen zituen, baita mugara iristen ziren etorkin gaixoak edo baliabiderik gabekoak ere. Prozesu infekzio-kutsakorren eraginpean egon zitezkeen pertsonen azterketa medikoak egiteko pabiloia zuen, baita laborategi kimiko-

---

<sup>10</sup> 1924. urtean Madrilen finkatu zen, eta Juan Madinaveitiaren beste ikasle batzuekin batera Madinaveitia Institutua sortu zuen.

<sup>11</sup> Udalak zentro hau sortu zuenean epidemia-prozesuak desagerraraztea zuen helburu, baita ardoaren, esnearen, sagardoaren eta premiazko bestelako elikagaien esparruko iruzurrarekin amaitzea ere. Bertako lehen zuzendaria Cesar Chicote del Riego farmazialaria izan zen.

<sup>12</sup> Sorospen Gela ere esaten zitzaion larrialdietako laguntza mediko-kirurgikoa ematera bideratutako zentro honi. Hasieran praktikante batek egiten zuen lan bertan, baina jarduerak izandako gorakadaren ondorioz, udalak mediku-lanpostu bat sortu zuen.

bakteriologikoa, garbiketa-pabiloia, dutxa kolektiboa, ilea mozteko ile-apaindegia, desintsektazio-zerbitzua, arropak eta tresnak desinfektatzeko pabiloia, gaixoak isolatzeko aterpe-pabiloia eta epidemia-prozesuetarako isolatze-ospitalea ere. Bestalde, Pasaiako portuko osasun-estazioa gaixotasunak, kolera edo izurria esaterako, itsasontzien bidez sartzea ekiditeko sortu zen. Itsasontzi susmagarriak guztiz desinfektatzen ziren bertan. Bazen gaixotasun benereoen aurkako artategi bat ere marinelentzako.

Gainera, aurreko mendearen hasieraz geroztik bazegoen baliabide ekonomikoen eskasia zela-eta haurrak edoskiarazi ezin zitzaketenak artatzeko zerbitzu espezifikoa. Hala, 1903. urtean Esne-tanta martxan jarri zen diputatu probintzialaren ekimenez<sup>13</sup>. Zentroa Donostiako San Martin merkatuko pabiloi batean zegoen, eta bertan Aldundiak aurrez erositako behien esnea maternizatzen eta esterilizatzen zen. Behartsuek esnea doan lortzen zuten bertan, baina trukean haurrak zentroko pediatria-kontsultetara eta astean behin pisatzera eraman behar izaten zituzten.

Haur abandonatuak egoera eskasetan bizi ziren, eta beren heriotza-tasa oso handia zen. Ondorioz, Aldundiak gaiari buruzko araudia publikatu behar izan zuen XIX. mendearen erdialdeaz geroztik. Hala eta guztiz ere egoerak bere horretan zirauenez, 1900. urtean Aldundiak batzorde bat osatu zuen haur abandonatuen egoera azter zezan. Batzordeak haur abandonatuentzako etxe bat eraikitzea proposatu zuen, bertan haur horiek arta zitzaten. Kokaleku gisa Zizurkilgo Fraisoro lursaila aukeratu zuten, bertan ugariak baitziren esnea eta hura esterilizatzeko eta maternizatzeo tresnak. Fraisoro Haur Abandonatuentzako Etxeko lehen sendagile arduraduna Jose Joaquin Albea<sup>14</sup> Billabonako sendagilea izan zen, eta eskuzabaltasun handiz egin zuen lan haur abandonatuentzako etxean.

Gipuzkoak XX. mendearen hasieran zuen beste arazo bat tuberkulosiak eragindako heriotza-tasa handia zen. Izan ere, tuberkulosiak eragindako heriotza-tasa handiena zuen probintzia zen Gipuzkoa, eta ondorioz tuberkulosiaren aurkako artategiak eta erietxeak sortu ziren bertan. Prebentzio-zentro horien arteko lehena, Nuestra Señora de las Mercedes Erietxea<sup>15</sup>, Tuberkulosiaren Aurkako Udal Batzarrak sustatu zuen, eta 1912an inauguratu zen. 1930eko hamarkadaren hasieran zentroa Ongintza Batzordeari transferitu zitzaion. Aldundiak, bere

---

<sup>13</sup> Ideiak Frantzian zuen jatorria. Bertan 1894. urtean sortu zen ezaugarri horiek zituen lehen instalazioa, baliabide ekonomikoen eskasiarengatik inuderik izan ezin zezaketen haurren heriotza-tasa murrizteko.

<sup>14</sup> Ginekologian eta sabeleko prozesuetan aditua zen. San Antonio Klinikako toko-ginekologo gisa ere egin zuen lan. Halaber, sendagile izan zen Probintziako Ospitalean.

<sup>15</sup> Uban zegoen (Donostian), 40 ohe zituen emakumeentzako soilik eta atsedena, elikadura egokia eta medikazioa eskaintzen zizkien. Lorearen jaian bildutako dirua zentroa mantentzera bideratzen zen. Gerra Zibilean ospitale militar bilakatu zen, eta beranduago Laguntza Sozialeko Haurrentzako Etxea (1953. urtetik 1978.era).

aldetik, erietxe bat ezarri zuen Asteasuko Andazarrate mendian, 80 oherekin. Zentro horrek Estatuaren laguntza zuen, eta Tuberkulosiaren Aurkako Batzorde Probintzialaren kontrolpean zegoen. Halaber, 1913an Eizaguirre doktoreak Donostiako Manteo Ospitalean tuberkulosiaren aurkako artategi bat sortzea lortu zuen. 1928. urtean San Bartolome kalean beste bat ezarri zuten. Eta ondoren Eibarren, Irunen, Tolosan, Azpeitian eta Bergaran sortu zituzten tuberkulosiaren aurkako artategiak. 1934an Estatuak erreleboa hartu zuen tuberkulosiaren aurkako borrokan. Hala, tuberkulosiaren aurkako artategi bat sortu zuen Donostian, eta beste bat Eibarren. Aldi berean, sendagileak biztanleria eta agintariak gaiari buruz sentsibilizatzen saiatu ziren, gaixotasunari aurre egin eta Tuberkulosiaren Aurkako Borroka sortzeko. Kanpaina horri dagokionez, nabarmentzekoa da Eizaguirre eta Zaragueta doktoreek egindako lana, Tuberkulosiaren Aurkako Txartela diseinatu baitzuten. Txartel hori elizen eta prentsaren bidez banatu zen, besteak beste. Berebat, doktore horiek hitzaldiak eman zituzten elkarte, zentro erlijioso, eta abarretan. Kanpaina hau Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu zuen. 1930. urtean abiarazi zuten txertaketa-kanpaina Donostian. 1934. urtean dagoeneko 6.000 haur zeuden txertatuta. Txartela —kutsaduraren kausei eta kutsatzea ekiditeko bitartekoei buruzko informazioa ematen zuen— argi eta xehe idatzita zegoen, helburua biztanleria osoa jakinaren gainean jartzea baitzen. 10.000 aleko tirada egin zuten, eta Gipuzkoa osoan zehar banatu zituzten ale horiek. Gainera, parrokoek elizetan irakurri zuten, eta *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak osorik argitaratu zuen.

Zerbitzu horiez gain klinika pribatuak zeuden, burgesiako pertsona gero eta ugariagoen eta oporrak hemen pasatzera etortzen ziren eta zentro pribatuak ordain zitzaketen kanpotarren eskaerei aurre egin ahal izateko. Klinika horiek Donostian, Tolosan, Irunen eta Eibarren zeuden nagusiki. Ateak ireki zituen lehena San Ignazio Klinika Etxea izan zen (Gipuzkoako lehen zentro mediko-kirurgiko pribatua, 1906an Oreja, Castañeda<sup>16</sup>, Antin eta Vidaur<sup>17</sup> doktoreek sortua; ondoren Urrutia eta Gaiztarro<sup>18</sup> doktoreek ere bertan lan egin zuten, baita Donostiako lehen erradiologoa izan zen Sebastian Cordoba doktoreak ere). Ateak ireki zituzten hurrengo klinikak hauek izan ziren, besteak beste: Perpetuo Socorro Klinika (1908an Michel Leremboire sendagile frantsesak inauguratu zuen, Rodriguez del Castillo anaien laguntzarekin), Nuestra Señora de las Mercedes Klinika (Huici eta Egaña doktoreek ireki zuten 1913an, Manteo

---

<sup>16</sup> Ipar Amerikan, Parisen eta Vienan ikasi zuen, eta otorrinolaringologian espezializatutako Espainiako lehen sendagileetako bat izan zen. Bere espezialitateko hainbat elkarte zientifikotako kidea izan zen, eta lortutako ospe handia zela-eta Espainiako errege-familiarentzat lan egin zuen. Elkargoko lehendakaria izan zen 1903 eta 1907. urteen artean.

<sup>17</sup> Parisen egin zituen oftalmologian espezializatzeko ikasketak. 1903tik 1948an erretiratu zen arte, San Antonio Abad Ospitaleko oftalmologoa izan zen. Erretiratu ondoren apaiz egin zen, eta Txinako misioetara joan zen.

<sup>18</sup> Espezialitate-ikasketak Parisen egin zituen, eta Gipuzkoako lehen kirurgialaria izan zen. Berak sartutako kirurgia digestiboko teknika Urrutia doktoreak garatu zuen ondoren. Bere ospeari esker San Antonio Abad Ospitale Zibileko kirurgia-saileko buru izendatu zuten 1893an. Bertan kontsulta pribatuak ere pasatzen zituen.

ospitalera joan ezin zuten gaixo pribatuak zaintzeko. 1928an, Egaña hil ondoren, klinika bere laguntzaile Jose M<sup>a</sup> Zuriarrainen kargu geratu zen, eta berehala klinika propioa eraiki zuen azken honek. Pixka bat geroago Martin Santosek<sup>19</sup> hartu zuen eraikina, 1936. urtean, Iñaki Barriolak<sup>20</sup> eta Fort Zarragak erosi zutenera arte) eta Arantzazuko Ama Klinika (1921. urtean Luis Ayestaranek inauguratua, Olalde eta Mozorekin batera).

Gainera, Donostiak Gurutze Gorriaren Ospitalea zuen, 1917an ateak ireki baitzituen, Donostian uda pasatzen zuen Maria Cristina erreginak finantzatua. Zentro hau Gurutze Gorriko Dama Erizainen lehenengo Eskola izan zen. Hasieran 10 ohe zituen, eta behartsuentzako doako artategi eta erizain-eskola gisa funtzionatu zuen. 1921. urtean Annualetako hondamendiko zauritu asko hartu zituen. 1930eko urrian toki berean eraikin berri handiagoa ireki zuten, 100 oherentzako lekuarekin. 2002. urtean itxi zuten, eta adinekoak artatzeko zentro soziosanitario bilakatu zen.

Lehen amaetxea Donostian ireki zuten 1933. urtean. Aldakonea kaleko aldapan kokatua, lehen urtean 205 jaiotza erregistratu ziren bertan, eta ginekologiaren eta obstetriziaren esparruko 125 ebakuntza egin zituzten. Kontsultategiak 1.334 emakume artatu zituen, erabat doan. Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak finantzatu zuen hori guztia, Aurrezki Kutxa Probintzialaren, Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta Adingabeak Babesteko Batzordearen laguntzarekin. Eraikina 1936. urteko abuztuan bonbardatu zuten, eta zerbitzuak Ulia mendiaren magalean kokatutako etxe batera pasa zituzten, Amaetxea konpontzeko lanak 1941. urtean amaitu zituzten arte. Gaixotasun-asegurua amatasun-zerbitzuaren jarduerak eraginda gainbehera hasi zen 1945ean. 1953. urtean eraikina Koruko Amabirjinaren Etxe-eskola bilakatu zen.

1898ko ekainean ateak ireki zituen Arrasaten Santa Ageda Osasun-etxeak, ordura arte Santa Ageda Bainuetxea izan zen tokian. Gaixo mentalentzako ospitalea zen osasun-etxe hori.

---

<sup>19</sup> Kirurgialari militar honek lan handia egin zuen Donostian. Ospitale Militarreko kirurgialaria izan zen, baita Nuestra Señora de las Mercedes Klinikakoa, Gurutze Gorriaren Ospitalekoa eta San Antonio Abad Ospitale Zibilekoa ere. 1936an erietxe kirurgiko bat eraiki zuen, eta bere izena eman zion (mende honen hasieran guztiz berritu eta zabaldu egin zen erietxe hori; 1990. urteaz geroztik Quiron taldearena da eraikina, eta bertako espezialitaterik nabarmenena laguntza bidezko ugalketa da). Gerra Zibilean fronte desberdinetan egon zen. Gerra amaitu ondoren Donostiara itzuli zen, eta bertan Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko lehendakari kargua izan zuen, besteak beste.

<sup>20</sup> Bere lehen sendagile-lanak San Antonio Abad Ospitale Zibilean egin zituen; Nuestra Señora de las Mercedes Klinikako zuzendaria izan zen. Hainbat liburu eta artikulu idatzi, eta hitzaldi ugari eman zituen. 1993. urtean EHUK Urrezko Domina eman zion Gipuzkoa unibertsitate-zentroz hornitzeko egindako lanarengatik (Ibaetako Campuseko eraikinetako batek bere izena hartu zuen). Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko lehendakaria izan zen 1978. eta 1993. urteen artean.

Cánovas del Castilloren erailketaren ondoren itxitako bainuetxea erosi eta gaixo mentalei tratu hobea emango zien zentroa sortzen saiatu zen Aita Menni (San Juan de Dios Ordenakoa), ordura arte baldintza okerrean edukitzen baitzituzten gaixo horiek, eta gizartetik aldenduta gainera.

Garai hartako ongintza-zentroen artean aipagarria Erruki-etxea da; aurrez San Frantzisko komentua hartutako orubean eraiki zuten, eta Erruki-etxea eta Ospitale Zibila barnean hartzen zituen. Zentroak 200 adineko eta haur hartzeko gaitasuna zuen. 1887. urtean Donostiako udalak Ubako komentua erosi zuen, Loiola auzotik gertu, Erruki-etxean jasotako haurrak har zitzen. Erruki-etxeak eraikin berean jarraitu zuen harik eta 1910. urtean Zorroaga eta Tximitegi baserrien lursailetan Reina Victoria Babes Etxea eraiki zuten arte.

Matia Babes-etxea 1889an Donostiako Lugaritz auzoan inauguratu zen, 20 gizonezko eta 20 emakumerentzat. Itsasontzien salerosketaren bidez ondare handia irabazitako Jose Matia Calvo filantropoaren legatuari esker finantzatu zen zentroa. Santa Isabel Artategia ere lan filantropikoa izan zen. Charles Vic doktoreak (Donostian finkatuta zegoen sendagile frantsesa bera) jarri zuen martxan pertsona behartsuentzat. Zentroa 1910ean inauguratu zuten, eta Gerra Zibila hastearekin batera desagertu zen. Pentsak goretsitako establezimendu hori moja domingotar batek zuzentzen zuen. Gaixoak artatzeko lanetan hainbat espezialitatetako hiriko sendagile ugari hartzen zuten parte: pediatria, medikuntza orokorra, otorrinolaringologia, digestio-aparatua, ginekologia, eta abar. Kontsultetan Frantziako Gurutze Gorriaren arauen arabera trebatutako titulurik gabeko erizainek artatzen eta laguntzen zituzten gaixoak.

### **Gerra Zibilaren osteko gaur egunera arteko etapa**

1932. urtean Aldundiak eta Donostiako udalak —batak nahiz besteak Ongintza Batzordea osatzen baitzuten— Donostian ospitale berria eraikitzea hitzartu zuten, probintzia osoari zerbitzua eman ziezaion. Proiektuak —aurrekontua 12 milioi pezetakoa zen, eta Manuel Usandizaga<sup>21</sup> doktoreak aholkulari-lanak egin zituen— 600 ohe inguruko ospitalea aurreikusten

---

<sup>21</sup> Bere ibilbide profesionala Sorostetxeko sendagile gisa hasi zuen. Madrilen eta Basurtuko Ospitalean ikasi ondoren, bere esperientzia Berlinen, Vienan eta AEBetan hedatu zuen. Ginekologia eta Obstetrizian espezializatu eta 1929an Santanderko Valdecilla Ospitaleko Ginekologia zerbitzuan sartu zen. Bertan erizainak prestatzeko zentro bat sortu zuen. 1935. urtean bere espezialitateko katedra irabazi zuen Salamancako Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean. Katedra hori berori izan zuen Zaragozan, Valladoliden eta Bartzelonan ere. Azken hiri horretan Osasun Laguntzaile Teknikoen Eskolako, eta Ospitale Kliniko eta Probintzialeko zuzendari ere izan zen.

zuen, funtsean Lyongo Herriot Ospitalean inspiratua. Aukeratutako kokagunea Zorroagako muinoa izan zen, Amara auzoaren hegoaldean.

Eraikitze-lanak hasiak zeuden, baina Gerra Zibila piztearen ondorioz ospitalearen eraikuntza bertan behera geratu zen. Urteak eman zituen bere horretan hormigoizko eskeleto erraldoiak. Toki berean Gipuzkoako Aldundiak Psikiatrikoa eraiki zuen 1944. urtean (Foru Aldundiaren mendekoa, Ospitale Probintziala bezala), eta Luis Martin-Santos psikiatra izan zen bertako zuzendaria.

Bestalde, 50eko hamarkadan zenbait erakundek inguruan ospitaleak eraikitzeko ideia berreskuratu zuten. 30eko hamarkadan egindako hasierako proiektuan ez bezala, oraingoan asmoa zenbait osasun-zentro eraikitzea zen. Hala, aurreikusitako tuberkulosoentzako pabiloia Tuberkulosiaren Aurkako Borrokarako Patronatu Nazionalari eman zitzaion, eta hala sortu zen Toraxeko Gaixotasunen Ospitalea. Zentroa 1953ko abuztuaren 12an inauguratu zen arren, jarduera hasia zuen ordurako, 1952ko udaz geroztik. Tuberkulosiaren Aurkako Borrokarako Patronatu Nazionalaren mendeko zentro honetara eraman zituzten Nuestra Señora de las Mercedes Erietxeko gaixoak (emakumezkoak) eta baita San Antonio Abad Ospitaleko Doker haur-pabiloiko haurrak ere. Beranduago, 1955. urtean, Andazarrate erietxeko gaixoak (gizonezkoak) ospitaleratu zituzten bertan. Urteak igaro ahala tuberkulosiak behera egin zuenez, ospitalea gainerako arnas patologietara bideratu zen, eta ondoren epe ertain eta luzeko egonaldietara. 1981. urtean Eusko Jaurlaritzari transferitu zitzaion ospitalea, eta 1985ean Amarako Ospitale izena hartu zuen. Gaur egun sektore hau epe ertain eta luzeko egonaldietan espezializatuta dago. Erantsitako eraikin batek Medikuntza Fakultateko ordezkariaren egoitza eta Erizaintzako Unibertsitate Eskola hartzen ditu barnean.

Bestalde, 1957an, hasieran Erizainen Eskola izango zena Ospitale Probintzial gisa erabiltzea erabaki zen. 165 oheko erietxe hori 1960ko martxoaren 19an inauguratu zen, urte batzuk lehenago eraikitako zentro psikiatrikoarekin batera. Administratiboki zentroaren zuzendaritza psikiatrikoko zuzendari Luis Martin-Santos psikiatrari zegokion arren, beste profesional bat aukeratu zuten kargu horretarako: Carlos Elosegui<sup>22</sup> doktorea, izen handiko barne-medikuntzako sendagilea eta kudeaketa-gaitasun handiko gizona. Hala ere, Manteo Ospitaletik zetozen zerbitzu-buruzagitza mantendu egin ziren, esate baterako oftalmologiari (Azcoaga dk.)

---

<sup>22</sup> Bere ibilbide profesionaleko lehen lana oposizio bidezko barne-sendagile gisa egin zuen Madrilgo San Carlos Ospitalean. 1940 eta 1946. urteen artean Santanderko Valdecilla Ospitaleko barne-sendagilea izan zen, eta bertan egin zituen barne-medikuntzako espezialitate-ikasketak eta hipertentsioari buruzko doktorego-tesia. Donostiara itzuli ondoren Barne-medikuntzako zerbitzuburu eta Ospitale Probintzialeko zuzendari izendatu zuten, eta 1968. urtera arte egon zen ospitale horretan. Gipuzkoako Poliklinika martxan jartzeko lanetan parte hartu zuen beste sendagile gipuzkoar batzuekin batera.



eta laborategiari (Irizar dk.) zegozkionak. Psikiatrikoak eta eraikin berriak (biak Foru Aldundiaren mendekoak) Gipuzkoako Ospitale Probintziala osatu zuten.

Eraikina (Muñoz Baroja arkitektoaren obra) modernoa zen garai hartarako, eta ondo hornitua zegoen, lau solairu eta lau ohetik behera zituzten gaixoenzako gelek. Barne-medikuentzako gelak ere bazituen, baita erizaintza-eskola eta gaixok zaintzen zituen mojen komunitate erlijiosoa ere. 1985. urtean Osakidetzaaren ospitale-sareko parte izatera pasa zen akutuen zentro gisa, eta Gipuzkoako Ospitale izenarekin zerbitzua eman zion 15 udalerrik eta 160.000 biztanleko populazioak osatutako osasun-eskualdeari. 90eko hamarkadan Gipuzkoa Ospitale izena hartu zuen.

Halaber, 50eko hamarkadaren erdialdean Gizarte Aurreikuspeneko Institutu Nazionalak Donostian osasun-zentro berria eraikitzea proposatu zuen. Hala sortu zen Arantzazuko Ama Gaixotasunen Nahitaezko Aseguruaren Ospitalea, hasierako Ospitale Probintzialaren egitura zentralaren gainean eraikia. Zentroa 1960. urteko abuztuan inauguratu zuen garai hartako estatuburuak (Ospitale Probintziala inauguratu eta bost hilabete beranduago bakarrik). Hasieran 650 ohe zituen, lau solairutan banatuak. Lehenengo gaixok (Ategorrietako amaetxean ospitaleratuta zeuden amak eta haurrak) bezperan eraman zituzten bertara. Insalud-en mendeko zentro honek Manteo Ospitalea ordeztu zuen, eta Alfonso Ugalde izan zen bere aurreneko zuzendaria.

1985. urtean ama-haurrentzako eraikina altxatu zen atzealdean, eta bertara eraman ziren bi ospitale orokorretako pediatria-, ginekologia- eta obstetrizia-zerbitzuak. Zentroa euskal osasun-sarean sartu zen 1987. urteko transferentzien dekretuarekin. 90eko hamarkadan Arantzazuko Ama Ospitalea izena hartu zuen.

1978-1979 ikasturteaz geroztik martxan dago Medikuntzako Irakaskuntza Unitatea. Zentro hori EHUren Medikuntza eta Odontologia Fakultateari dagokio, eta bere erantzukizunpekoa da Gipuzkoako Campuseko medikuntzaaren esparruko bigarren eta hirugarren zikloetako ikasketen irakaskuntza. Unitate honek medikuntza eta kirurgiako 2.000tik gora lizentziadun prestatu ditu, eta medikuntza- eta kirurgia-doktoreak, berriz, 71tik gora..

60ko hamarkadan, hiru ospitale hauek eraikitzearekin bat (Toraxeko Gaixotasunen Ospitalea zena, gaur egungo Amara Ospitalea; Ospitale Probintziala, gero Gipuzkoa Ospitalea izan zena; eta garai bateko Arantzazuko Ama Gaixotasunen Nahitaezko Aseguruaren Ospitalea, gaur egun Arantzazuko Amaren Ospitalea dena) Zorroaga Gaina Gipuzkoako ospitale-jardueraren zentro bilakatu zen. Jarduera mantentzen da gaur egun ere, bertan baitago Donostia Ospitalea –EAEko osasun-zentro handienetako bat–, 80ko hamarkadaz geroztik Osakidetzaaren sarearen parte ziren hiru ospitaleek bat egitearen ondorioz sortua.

Bateratze-prozesua 1995ean hasi eta 2001ean amaitu zen. Sendagileek, erizainek eta zuzendaritzakoek osatutako lantalde batek "Donostiako Ospitale Publikoentzako Plan Estrategikoa" egin zuen, hiru zentroen egitura, antolaketa eta funtzionamendua herritarrek artatzeko egokienak ziren edo, aitzitik, ospitale horiek hobetu zitezkeen jakiteko.

Horren ondorioz egin zuten lehen jarduketa hiru zentroak lotzeko zubi bat irekitzea izan zen (1996an). Donostiako Ospitale Konplexua urtebete beranduago sortu zen (1997. urtean), eta laborategi bateratua ["Donostiako Laborategi Bateratua"], hurrengo urtean (1998an). Hiru urte eskasetan laguntza-zerbitzu orokorrak eta zerbitzu tekniko orokorrak elkartzea lortu zen. Gainerako zerbitzuak pixkanaka sartu ziren proiektuan.

2010az geroztik Donostia Ospitaleak farmazia bateratua du, baita larrialdietarako kirurgia-bloke berria ere (lehenengo larrialdietako instalazioei 1.200 metro karratu gehitu zaizkie, lau operazio-gelatan, gela horiek esterilizatzeko alderdian eta Larrialdietan sartzen diren gaixoak behatzeko tokietan banatuta). Halaber, 2010. urtea amaitu aurretik Biodonostia Institutua inauguratuko da aurreikuspenen arabera. Euskadiko Osasun Ikerketako lehen Institutua da, Osakidetza eta BIO Fundazioaren arteko hitzarmenaren ondorioz 2008. urtean sortua. Euskal Herriko Unibertsitateak ere parte hartzen du institutu honetan, baita INBIOMED, VICOMtech, CIC Microgune, CIC Biomagune eta CIC Nanogune ikerketa-zentroek, Osasun Publikoko Zuzendariordetza, Osatek-ek eta INGEMA Fundazioak ere. Halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Teknologia Parkearen (Miramonen) partaidetza du. Julio Arrizabalaga da zentroaren zuzendari zientifikoa.

Biodonostiak sei ikerketa-eremu ditu gaur egun: Neurozientziak<sup>23</sup>; Gaixotasun digestiboak, kardiobaskularrak eta beste gaixotasun sistemiko batzuk<sup>24</sup>; Gaixotasun infekziosoak<sup>25</sup>; Epidemiologia eta osasun publikoa<sup>26</sup>; Medikuntza biziberritzailea<sup>27</sup> eta Bioingeniaritza<sup>28</sup>. Eremu

---

<sup>23</sup> Neurozientzien esparruko ikerketak bultzatzen dituen taldea Carlos III. Institutuak sustatutako ikerketa-zentroen parte da. Atal honetan egindako ikerketak gaixotasun neurodegeneratiboei, esklerosi anizkoitzari, gaixotasun neuromuskularrei, gaixotasun zerebroaskularrei eta neuroonkologiari dagozkie.

<sup>24</sup> Eremu honetan hesteetako gaixotasunekin eta gibleko gaixotasunekin erlazionatutako patologiei buruz ikertzen da, baita hipertentsio-etologiako bihotz-gutxiegitasunari eta onkohematologiari buruz ere.

<sup>25</sup> Ikerketa-eremu honi talde hauek dagozkie: arnasbideetako infekzioa eta mikrobioen kontrako erresistentzia taldea; txertaketa bidez saihestu daitezkeen gaixotasunen taldea (errotabirusa, gaixotasun meningokoziko inbaditzailea edo umetoki-lepoko kartzinoma); eta HIESa eta GIBen infekzioak taldea, erretrorirusen kontrako tratamenduaren eraginkortasuna eta hepatitisaren birusaren eta GIBaren koinfekzioa aztertzen dituena.

<sup>26</sup> Ikerketa-eremu honetan hiru talde daude: epidemiologia klinikoaren taldea, hiru azpiprogramarekin: eraginkortasun kliniko, ikerketa-metodologia eta ebidentzia oinarritutako medikuntza; minbiziaren eta beste gaixotasun kroniko batzuen epidemiologiarena, dietak, faktore metabolikoak eta genetikoak minbiziaren eta beste gaixotasun kroniko batzuen sorrerarekin duten erlazioa ikertzea helburu duen Europa mailako ikerketa batean parte hartzen duena; eta ingurumen-epidemiologia eta haur-garapenaren

horietako bakoitzean ikerketa-talde askok egiten dute lan, eta garatzen dituzten programek hainbat azpiprograma dituzte barnean. Guztira 200 profesional inguruk hartzen dute parte nazio eta Europa mailako proiektu ugarian. 2010. urteko azken hiruhilekoan inauguratzea espero da.

Ingurune horretan dago Gipuzkoa Poliklinika, 1975. urteko uztailean inauguratua, osasun-zerbitzu integrala eskaintzea helburu zuen sendagile eta enpresari gipuzkoarrek osatutako talde baten ekimenez. 18.000 metro karratuko eraikin propioa du, eta gure inguruneke lehen osasun-zentro pribatua da. Erantzuna ematen die 12.000 ospitaleratzeri, eta 10.000 operazio kirurgikotik gora egiten ditu urtean. Horretarako 12 operazio-gela, ZIUko 14 postu eta 149 ospitaleratze-ohe ditu, baita Eguneko Ospitaleko 18 gela ere. Halaber, kanpo-kontsulten zerbitzua eskaintzen du, eta 150etik gora dira bertan artatzen duten sendagile espezialistak.

2009ko urtarrilean ingurune honetara ekarri zen Institutu Onkologikoa ere. Laguntza-zentro eta minbiziari buruzko ikerketa-zentro izatea zuen helburu hasieratik bertatik. 60 milioi eurotik gorako inbertsioa egin behar izan da Onkologikoa martxan jartzeko. Zentro berriak Onkologikoa izena hartu du orain, Kutxaren gizarte-ekintzaren parte da, eta hainbat esparrutako 300tik gora profesionalek egiten dute lan bertan.

---

taldea. Azken talde horrek aireko, uretako eta dietako ingurumen-kutsatzaile garrantzitsuenek haurdunaldian, bizitzaren sorreran eta garapenean duten funtzioa eta eraginak ikertzeko proiektuan parte hartzen du.

<sup>27</sup> Ikerketa-eremu honetako hiru taldek egiten dute lan zelula amekin: mesenkimako zelula amen taldea; giza azaleko zelula amen taldea eta terapia biziberritzailea Parkinson gaixotasunean taldea.

<sup>28</sup> Taldeak SERENA (aortako aneurismetan endoprotesiak hausteko arriskua ebaluatzeko sistema-ren akronimoa) proiektuan egiten du lan. Proiektuak gaixo jakin baten endoprotesia **hausteko** arriskua ebaluatzeko eta kasuan bakoitzean erabaki terapeutikorik onena hartzeko laguntza-tresna bat sortzea du helburu.